

**-Kaixo, ni Rosmery nahiz, eta Zumaiari buruz galdera batzuk egingo dizkizut. zumaiarrek bizi-itxaropen handia izango al dute?**

-Nire ustez berdin jarraituko du, herri txiki bat da eta bizi itxaropen berdina edukiko du.

**- Proportzioan zer egongo da, neska gehiago, ala mutil gehiago?**

-Nire ustez berdintsu egongo dira, baina agian, mutil gehiago. Genero horrek probalitate gehiago duelako.

**-Orain ekonomiari buruz galdera batzuk egingo dizkizut. Zumain bizitzea garestia izango al da? Edo merkea?**

-Nire ustez garesti, eta gero eta garestiagoa, kostan gaudelako eta jende guztiak kostara nahi duelako etorri. Orduan garestiagoa izango da.

**-Tabernetan lan egiten duten gazteak presionatuta sentitzen dira, uste duzu turismoak zerikusia duela?**

-Bai, Zumaia ezaguna egin delako eta kanpotar asko etortzen direlako herria ikustera.

**-Jatorriari buruz ere galdetuko dizut. Lehenego galdera da, Zumaiaiko kotxeak gasolinarekin edo energia berriztagarriarekin mugituko dira?**

-Nire ustez, gasolinarekin, oraindik ez gaudelako prestatuta energia hori erabiltzeko. Kargatzeko estazioak beharko dira, eta nire ikuspuntutik ez gaude prestatuta aldaketa handietarako.

**-Bai, nire ustez ere bai, ordenagailuak aldatzen ditugunean ez dakigu zer egin haiekin. Uste duzu ideia ona izango dela ordenagailu horiek hirugarren munduari ematea?**

- Bai, baina haiei erakutsi beharko genieke, orduan trabak sortuko ziren.

**-Bai nire ustez ere bai. Orain klima aldaketari buruz hitz egingo dugu. Ur azpian geldituko al da Zumaia? Itsasoaren mailak zenbateraino egingo du gora?**

- Nire ustez maila igo egingo da naturalki, kostan gaudelako, baina ur azpian gelditu arte ez. Klima aldaketa ez da egongo.

**- Temperaturari dagokionez, zenbat gradu igoko da?**

-Nik uste dut, ez da gehiegi aldatuko, gehienez bi grado.

**-Eta gendarteari buruz ere hitz egingo dugu.Bi galdera bakarrik dira.Gaur egun sare sozialetan oso sartuta gaude.Zure ustez gutxiago elkartuko gara aurrez aurre?**

- Nire ustez gutxiago elkartuko gara aurrez aurre, baina,hala ere, badago jendea nahiago duena horrela elkartzea.

**-Azken emaitzetan, euskarak behera egin du.Zure ustez euskara hitz egiten duten pertsonen proportzioa igo egingo al da?**

-Nire ustez bai, zeren eta zumaia da gehienbat hitz egiten dena euskaraz.Euskara gehiago defendatzen duen herria delako.

**-Bueno hori izan da dena eta agur.**

-Eskerrik asko

Ez du nahi argazkirik atera nahi.